

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

**ARETXABALETAKO UDALA***Iragarkia*

2019ko irailaren 11n izandako osoko bilkuran Aretxabaletako udalerriko telekomunikazio-osagai eta ekipoen kokapena, instalazio eta funtzionamenduetarako baldintza urbanistikoak arautzen dituen udal ordenantzaren 16. artikulua aldatzea onartu zen eta 30 eguneko jendaurreko epean ez da erreklamaziorik aurkeztu. Honenbestez, aipatutako artikulua behin betikoz aldatu dela ulertzen da.

Alabaina, errakuntzaz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera aldatutako 16. artikulua edukia bidali beharrean jatorrizko edukia bidali da.

Egindako akatsa zuzenduz onartutako Aretxabaletako udalerriko telekomunikazio-osagai eta ekipoen kokapen instalazio eta funtzionamenduetarako baldintza urbanistikoak arautzen dituen udal ordenantzaren 16. artikulua berria argitaratzen da:

**16. artikulua.**

Beste kokaleku horiek baimendu ahal izateko, ingurumen inpaktuari buruzko azterlana aurkeztu beharko da, haren ezarpenak eta funtzionamenduak inguruan izan lezaketen eragin zehatzarekin, eta Ordenantza honen 40. eta 42. artikuluetan aipatutako gainerako dokumentazioarekin batera.

Instalatzean, ikus-inpaktua ahalik eta gehien leundu eta paisaian ondo integratzea lortzeko udal zerbitzu teknikoek xedutako neurriak errespetatu beharko dira. Antenak eta horren euskarriak osatutako multzoaren gehienezko altuera osoa ezin da 55 m-tik gorakoa izan. Horien ezarpena salbuespenezkoa izango da bizitegi-erabilerako eremuetan (14. artikulua araberak), non gehienezko altuera 25 m-koa izango den.

Bide lasterren aldameneko inguruetan, Gipuzkoako Errepide eta Bideen gaineko 1/2006 Foru Arauan ertzen babesari buruz ezarritako manuak bete beharko dira.

Eraikuntzarik ez dagoen lursailetan, Udalak ezarriko ditu, kasua bada, lizentziaren profesionaltasun-baldintzak.

Ahal dela, operadoreek konpartitu egingo dute kokaleku edota euste-egituren erabilera, Ordenantza honen 33. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aretxabaleta, 2019ko abenduaren 12a.—Unai Elkoro Oianguren, alkatea. (7861)

**AYUNTAMIENTO DE ARETXABALETA***Anuncio*

En sesión de pleno de fecha 11 de septiembre de 2019 la modificación del artículo 16 de la ordenanza municipal reguladora de condiciones urbanísticas de localización, instalación y funcionamiento de los elementos y equipos de telecomunicación, durante el periodo de información pública de 30 días no se ha presentado reclamación o sugerencia alguna, entendiéndose por tanto aprobado definitivamente la modificación de dicho artículo.

No obstante, por error en vez de remitir al BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el artículo 16 modificado, se remitió el texto original.

En aras a subsanar el defecto, se procede a la publicación del nuevo artículo 16 de la ordenanza municipal reguladora de las condiciones urbanísticas de localización, instalación, y funcionamiento de los elementos y equipos de telecomunicación:

**Artículo 16.**

Para poder autorizar esos otros emplazamientos se aportará un estudio de impacto ambiental en el que se describa detalladamente la posible incidencia de su implantación y funcionamiento de su entorno, así como el resto de documentación indicada en los art. 40 y 42 de esta Ordenanza.

En su instalación se adoptarán las medidas necesarias prescritas por los servicios técnicos municipales para atenuar al máximo el impacto visual y conseguir la adecuada integración en el paisaje. La altura máxima total del conjunto formado por la antena y su estructura soporte no excederá de 55 m; su implantación será excepcional en zonas destinadas a uso residencial (según el art. 14), en cuyo caso la altura máxima será 25 m.

En las zonas adyacentes a vías rápidas deberán cumplirse las prescripciones de protección de márgenes establecidas en Norma Foral 1/2006 de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa.

En parcelas no edificadas, el Ayuntamiento establecerá en su caso las condiciones de profesionalidad de la licencia.

Se procurará siempre lograr la utilización compartida de las localizaciones y/o estructuras soporte por parte de distintos operadores, de acuerdo con lo establecido en el art. 33 de esta Ordenanza.

Aretxabaleta, a 12 de diciembre de 2019.—El alcalde, Unai Elkoro Oianguren. (7861)